

Liderazgo en la Administración Pública Local

Prestakuntza

Programa

2025




Aurrekariak

Erreferentzia gisa hartuta 2018., 2020. eta 2022. urteetan garatutako «Tokiko Administrazio Publikoko Zuzendarien eta Arduradunen Lidergoan Gaitasun Maila Hobetzeko Prestakuntza Planak» eta 2021ean eta 2024an egindako «Tokiko Administrazio Publikoan Proiektuen Lidergoan Prestatzeko Plan Pilotua», 2025ean beste edizio bat abiarazi da, **“Lidergoa Tokiko Administrazio Publikoan”** izeneko, EHUK, EUDELe eta IVAPEk elkarrekin diseinatu.

Helburuak

- **Tokiko administrazio publikoko arduradunak prestatzea**, pertsonen zuzendaritza profesionalizatzeko.
- **Tokiko administrazio publikoan lidergoaren garapena bultzatzea**, liderraren rola eraginkortasunez hedatzeko alderdi praktikoetara edo aplikatuetara bideratuta lehentasunez, arazoei, erronkei, proiektuei eta pertsonetara harremanari aurre egiteko orduan.

Programa



1. Proiektuen lidergoa diseinatzea eta planifikatzea

Proiektuak Kudeatzeko Departamentua lidergoaren ikuspegitik. Proiektua garatzen duen pertsonaren epe labur-ertainean eta antolamendu-testuinguru naturalean aplikatu daitezkeen (edo garatzen ari den) benetako proiektu baten lidergo-proposamena egitea.

2. Kontzeptualizazioa eta testuingurua



Lidergoa eta horren testuingurua tokiko administrazio publikoan. Arazoak eta aukerak, erronkak eta erabakiak. Konpetentziak identifikatzea eta autobehatzea. Gaitasun eraginkorrak. "Liderraren" gaitasuna garatzea.



3. Lidergoa gauatzeko faktore estrategikoak

Lidergo mota/eredua hautatzea, lidergoaren zentzua eta erabilgarritasuna, konpetentzia soziala eta esleipena, adimen emozionala, taldeak, eragina, karisma, konfiantza, generoa, komunikazioa, etika eta balioak, klima eta ongizatea, misioa eta ikuspegia, helburuak eta emaitzak.

4. Pertsona

Lidergo-egiturako kideak: liderra eta talde, proiektu, arlo, sail edo erakunde bateko kide bakoitza. Kidetza- eta/edo presentzia-mailak. Faktore erabakigarriak: estatusa, boterea eta haren banaketa, gatazka eta kudeaketa, itxaropenak, mugak, aginte-printzipioa, dimentsio betearazlea, kontsiderazio integrala, feedbacka.



5. Taldea

Misioa-proiektua, aurretiko jarrera, informazioaren kalitatea, jarrera, balioak eta sinismenak, aliantza, hazkuntza eta ahalduztzea, autonomia eta erantzukizuna, portaera-palankak, erraztu eta indartu, autoestimua eta identitatea, misio modulatuaren balioa epe labur/ertainean, eta erronka.



6. Gai kritikoak lidergoaren jardunean

Eskuordetzea, epeak kudeatzea, esanahia ematea, zentzuz, motibazioz eta gogoz kudeatzea, erreferentzia-funtzioa, laguntza-zerbitzuaren funtzioa, orientazio-funtzioa, jarduteko estiloa eta rola, eszenaratzea, inspirazioa, modelatzea, taldearen copinga, liderraren copinga, asertibotasuna.



7. Bakarkako saioa

Ixteko prozesua pertsonalizatzea: programaren irteera-profila. Banakako saioa parte-hartzaile bakoitzarekin, 40-45 minutu ingurukoa. Programaren edukien, parte-hartzaile bakoitzaren profil/proiektuaren eta ariketa autonomorako orientabideen artean lotura ezarriko da. Saio horien datak abenduaren 9tik 12ra bitartean egingo dira.

8. Liderraren profila diseinatze eta aplikatzeko gida.





Tokia, ordutegia eta hizkuntza

Bilbo, EUDEL, Ertzilla kalea, 13
09:00-14:00
Gaztelera



Hartzaileak

Programan sartzen direnek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Pertsonen edo taldeen kargu izatea edo Tokiko Administrazio Publikoan zuzendaritzako edo erantzukizuneko kargu formal bat izatea.
- Lidergoan prestatzeko beharra agerian jartzea, lidergoaren kalitatea hobetzeko beharra, edo lidergo-mailako premia espezifikoak izatea pertsonen edo taldeen kudeaketan.



Ebaluaketa

Saio bakoitzean betetzeko emango diren **5 ebidentziak edo "fitxa-erronkak"** entregatuko dira. Saio batetik bestera hamabost eguneko epea aurreikusten da fitxa osatzeko eta hurrengo saioan entregatzeko.

Proiektu **lidergo-proposamen bat aurkeztu** beharko da, seigarren saioan egingo dena eta **zortzigarren** saioan entregatuko dena.

Proiektu potentzial baten ordeztu, benetako proiektuak edo abian daudenak tutorizatu ahal izango dira, parte-hartzaileek hala jakinarazten badute.



Ziurtagiria

Ziurtagiria emateko, bi baldintza hauek bete beharko dira, denak batera:

- Programak irauten duen orduen % 80ra, gutxienez, joatea.
- Gutxienez 10etik 6ko puntuazioa lortzea bost ebidentzia/erronka-fitxetako bakoitzean. Azken puntuazioa fitxa guztietan lortutako batez bestekoa izango da. Batez besteko hori egingo da baldin eta ebidentzia bakoitzean 10etik 6ko gutxienerako puntuazioa badago.



Izen-ematea eta matrikula

- Plaza kopurua: 15
- Izena emateko epea: 2025eko irailaren 5a
- Matrikula: 345,45 €
- Izen-emateak IVAPeko Solaskidegune aplikazio informatikoaren bidez egingo dira. Horretarako, dagokion toki-erakundeko prestakuntza-koordinatzailearekin jarri beharko da harremanetan.
- Onarpena: Programa hasi baino astebete lehenago, IVAPek onarpenak bidaliko ditu.
- Onarpena bidali ondoren, IVAPek faktura bidaliko dio dagokion erakundeari.

Oharra

- Lehenengo saioan, izena eman duten pertsonak udal-kargu publiko batekin joan beharko dute, eta, bertan, udal bakoitzean hedatu beharreko proiektu errealek edo potentzialak gauzatzean lidergo-prespektiboa txertatzeko berariazko enkarguak egin ahal izango dituzte. Agente horiek barne-tutore estatusa izango dute.